

Eulalia Elkoro Ugarte

*Bergara,
Gipuzkoa
(1921-2012)*

Aurkibidea

Biografia



Bergaran jaiotakoa Masterreka kalean, Jauregi etxean. Bizitza osoa janari-dendan lanean pasa zuen, Masterreka kaleko 30. zenbakian. Hizlari ona; Bergarako lehenagoko kontuak oso ongi gogoratzen zituen.

Zintak

BER-214

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Data:** 2005-11-14
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Unamuno, Arianne

BER-215

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-11-14
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Zubieta eta Mazterreka kaleak

- **Erref:** BER-214/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Zubieta eta Mazterreka kaleko etxeek ortua zuten atzekaldean.

2. Emakumeak lan-munduan

- **Erref:** BER-214/016
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Gaztetan Otazua ehundegian lan egin zuen. Emakumeak lan-munduan Bergaran. Mojetan gau eskola ipini zuten, lanean zebiltzan emakume askorentzat. Lan-baldintzak; egutegia.</p>

3. Eskola garaiko zenbait azalpen

- **Erref:** BER-214/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojen inguruko hainbat azalpen; irakasle desberdinak ikasleentzat (internak; etab). Musika ere ikasteko aukera zegoen.

Transkripzioa

- Ta zeuen sasoian e ba ez dakit irakasliak edo monjak bardiñak izaten zian?
- Betik. Betik euki nittuan monja berdinak.
- Esatia nahi dot, internendako monjak eta zeuendakuak?
- A, harek be diferentiak.
- Harek be diferentiak.
- Zeaittikan monjak zeren, zenbat egongo zien orduan? Fuf! Berrogei bat bai, hogeta hamar bat inguru edo bai. Ta zenbat ezautzen giñuzen ba guk? Gutxi. Bueno, geurera etortzen zienak. Ta gero ba pensioñokon batzuk be bai, igual ezautuko giñuzen edo igual emongo zoskuen e harei be emongo zotsen zeozer. Gero aparte emoten zebe e musikia nahi zebeak ikasi, hori be bai. Pianuak eta zeren, nahi zebanak ikasi, horrek ia pagau biha ziñuan aparte. Ta esternak bazeren afiziñua zeukenak eta ba ikasi zebeak. Haura aparte pagau biha ziñuan baiña bazeukazun e haura ikasteko opziñua bazeukazun.

4. Mojak Errepublika garaian

- **Erref:** BER-214/022
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojek erabiltzen zituzten jantziak nolakoak ziren; Errepublika garaian abitua kendu behar izan zuten.

Transkripzioa

- Eta monjak e jantzitta eta zela juaten zien?
- Ba, euki zebe e ni sartu nitzanian gerra aurretuan kendu in zotsen e hori, guregana etortzeko abittua kendu in zotsen.
- Republika sasoian edo?
- Bai.
- Ta orduan ze juaten zian normal jantzitta edo...
- Bai bai. Gero ba inpresio haundia ein zoskun geuri be bai, bakizu, ikusi dana hola hori, ta gero harekin ta erak be bai. Baiña gero ohittu zien. Baiña gureana etortzeko bakarrik jazten zien, e? Hola, bestela...
- Gero barruan eta?
- Barruan normal jantzitta. Han kuarton bat edo bazeuken ta han jazten zien ta honei e bestela media pensionistei ta honei, honei e monja jantzitta emoten zotsen. Baina gu publika giñen ta. Eskuela publikua zan guria.
- Eta orduan...
- Ta haura zan ba, ez zela da?
- Bai, de pago edo.
- Si. Ba oiñ esaten dabena "escuela esto, privada". Ta guri ba. Baiña bestela guk ez zaukogun ezen zerik e? Kalefaziñua be primerakua zeukoun.

5. Eskola garaiko zenbait azalpen

- **Erref:** BER-214/023
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:48:30. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Ikastetxea nolakoa zen; gelak, materiala... Liburu bakarra erabiltzen zuten, baina ez beraiek erositakoa, mojek uzten zizkieten liburuak. Zer ikasten zuten: matematika; Historia de España; etab.

6. Hizkuntzaren erabilera eskolan

- **Erref:** BER-214/024
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:53:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Mojatan erdaraz ikasi zuten, baina beraien artean euskaraz egiten zuten.

7. Euskara Bergaran

- **Erref:** BER-214/025
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:53:45. **Bukatu:** 00:55:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bergarako auzoetan euskararen erabilera desberdina izan da. Inguru batzuetan gehiago gorde izan da etxeko hizkuntza. Etxean euskaraz hitz egitearen garrantzia.

8. Ikastetxeak Bergaran

- **Erref:** BER-214/026
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:55:10. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bergaran egon ziren beste eskola batzuk: Conchita Maiztegiren eskola.

Irakaslearen ahizpa jostuna zen eta josten irakasten zuen. Ikastolaren hastapenak Bergaran.</p>

Transkripzioa

- Eta eskolia esan dozu, bueno, zeuek Enseñanza, baiña gero bazeuan beste bat hor frontoi inguruan edo? Eta haura...
- Oso ona zan haura.
- Ze zan Bergarako...?
- Bergarakua zan.
- Kontxita Maiztegi edo?
- Kontxita Maiztegi. Beste aizta batekin zeuan, bizi zan hor Barrenkalian eta aiztiak emoten zeban —han be ibili nitzan— “Corte y Confección”. Aiztiak emoten zeban, eta oso gutxi kobratzen zeban harek be, e. Ta bestia zan maistria, oso ona.
- Eskola hori nun zeuan orduan?
- Ba oin egongo da haura eskola haura daon lekuan, oin `Banco Central´-a daon lekuan, edo hola. Elementaletik etaratzen dot kontua, e? Elementala nun daon badakizu? Han frontoia, oin etxiak dare inda, baiña lehengo frontoia han gaiñian dao, asike... Antxoni edo... Antxonin tabernia edo, han inguruan egongo zan. Etxe bat bakarra zan e.
- Inguruan dana ortuak edo...?
- Ortuak [zan], inguruan ortuak.
- Eta etxe bakar horretan ze zeuan? eskolia...
- Eskolia. Eta gero goixan bizi zien... goixan egongo zien...
- Osea, jentia bizi zan.
- Bai, bai. Ez dakit hiru edo lau piso... hiru piso.
- Eta esan dozu eskola horretan neska asko, ez?
- Neskak... uii.. nik ez dakit zenbat jente pasau dan handik e. Ta ondo ikasitta e! Esaten dotsut, nere lehengusiñak be... dauzka lehengusiñak... bat sesenta y cinco años eta bestiak sesenta y dos edo... bueno, hor nunbaittekuak, eta danak han ibili dia, hirurak. Ta nere lagunak be bai. Ta ondo e, ondo, oso ondo ikasi zeбен.
- Eta hau, Kontxita Maiztegi, ze zan... titulua zekan berak ala?
- Bai, titulua zeukan, bai
- Osea Magisterixo ikasittakua ta...?
- Bai, bai, bai. Handik jente asko pasau da eta oso ondo gertauta. Ta gero, hamen zela ipini zan hori, ikastolia ipini zan. Seminarixua, dominikuak zeren lekuan edo han ikastolia ipini zan. Ta horrek ipini zeбенak ikastolia komeni jakuen ba... titulodunak. Zegaitxik orduan zela ez zeuan... Ta, klaro, subenziñuak eta gauzak hartzeko, ba, titulodunak komeni jakuen, ta [ze in zeбен?] Hola, bastante maestra haren modukuak... zegaittik beste batzuk be bazeren, akademixak-eta poliki-poliki ipini zien, ta akademixak-eta be eon die hamen. Ta ze in zeбен gero? Ba haura zabaldu zeбенian, ikastolia zabaldu zeбенian, ba, horrek batu in zittuen. Neure loiba baten... neure loiba baten andria be maistra in zeban —gaiñera maistra bost urtekua indda zeukan— eta oso ondo kolokauta zeuan, baiña horra sartu zan, zegaittik komeni jakuen titulodunak. Zeuken jentia euskerara emoteko gertauta bastante jente, baiña titulo barik, tituluak hartzen zeren, baiña ez dakit zenbat urte izango dien ya, urte asko, hogetamar baiño gehixao. Ta, klaro, horrek danak sartu zian ta oso lan ona in zeбен e. Baiña horrek orduaintxe desaparezidu zien horrek beste maistra horrek.
- Akademixa...
- Akademixa horrek eta danak. Eta gero han sartu zien.

9. Ikastolaren hastapenak Bergaran

- **Erref:** BER-214/027
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:58:45. **Bukatu:** 00:59:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Bergaran egon ziren beste eskola batzuk; irakasleak. Ikastolaren hastapenak Bergaran.

10. Hezkuntza Bergaran

- **Erref:** BER-214/028
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:59:45. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mutilak nora joaten ziren eskolara; ikastetxe desberdinak Bergaran. Fraideak, mojak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com